

LAN BATEN BILA

Iñaki Aldai

ialday@irakasle.net

ADINA

5. 6. eta DBH

PERTSONAIAK

. Mikel . Soldadua 1 . Kapitaina . Emakumea 3 . Bezeroa 2
. Aita . Soldadua 2 . Emakumea 1 . Emakumea 4 . Bezeroa 3
. Ama . Soldadua 3 . Emakumea 2 . Bezeroa 1 . Nagusia

Nahi izanez gero Emakumea 1+2+3+4 pertsona batek egin dezake.

Mikel (Kontalaria): Oso urduri nago gaur, baina amaieran kontatuko dizuet zergatik.

Kontatuko dizuedan istorio honek nire etxean du hasiera

Aita: Arratsalde on Mikel. Egun ona pasatu ahal duzu eskolan?

Mikel: Eh? Bai... bai... primeran.

Aita: Lan asko egin ahal duzu?

Mikel: Zera... bai... bai. Buenoooo... pillo bat.

Aita: Ederki, ederki. Horrelako semea nahi dut. Gaur eman behar zizkizuten notak ezta?

Mikel: Eh? Beno... bai...

Aita: Ea, erakutsi nota horiek.

Mikel: Eee... Aita, badakizu munduko aitarik onena zarela?

Aita: Eskerrik asko Mikel, baina utzi nota horiek ikusten.

Mikel: Eta munduko aitarik guapoena ere.

Aita: Baina zer duzu? Ea erakutsi notak.

Mikel: Eta gutxien haserretzen dena ere bai. Ezta?

Aita: Mikel, notak! (*azkenean notak ematen dizkio*) Ikus dezagun...
Matematika H.B/N.M, Languaia H.B/N.M, Ingurune H.B/N.M,
Euskara H.B/N.M.

Mikel, Zer esan nahi du H.B?

Mikel: H.B? Zera... ba... ba... H: hau eta B: bikain. Hau Bikain

Aita: Ederki Mikel. Eta N.M?

Mikel: Zera... eee... Notas Magníficas

Aita: Beraz arlo guztietan Bikain eta Notas Magníficas atera duzu!
Hau poza.

(Ama etxera heltzen da)

Aita: Mikel, erakutsi notak zure amari. Ai Karmentxu, nolako seme langilea dugun. Arlo guztietan Notas magníficas eta Hau Bikain atera du.

Ama: Notas Magníficas? Hau Bikain? Erakutsi informe hori.
(irakurtzen hasten da) H.B/N.M, H.B/N.M, H.B/N.M,....
Baina ze Notas Magnificas eta ze otxokuarto!

Aita: Baietz ba, N.M: Notas Magnificas, H.B: Hau Bikain.

Ama: Zu bai, zu, Tonto Magnífico. N.M: Necesita Mejorar eta H.B: Hobetu Beharra esan nahi dute.

Aita: Beraz...

Ama: Beraz guztia suspenditu du.

Aita: Dena suspenso?

Ama: Bikain! Azkenean ulertu duzu.

Aita: Alfer ontzi halakoa!

Mikel: Baina aita...

Aita: Aita eta aito! Hau da hau ganoragabea. Ez zaitut gehiago ikusi nahi probetxuzko pertsona bihurtu arte.

Mikel (kotalari): Aitarekin haserretu eta esan bezala, probetxuzko gizona bihurtu arte etxetik alde egitea erabaki nuen. Lanen baten bila hasi nintzen. Lehenengoz soldadu bihurtzea bururatu zitzaidan. Asmo horrekin soldaduzkako koartelera hurbildu nintzen, baina begira zer gertatu zen....

(Mikel eta beste hiru soldaduk kapitainaren agindupean dauden pelotoia osatzen dute)

Kapitaina: Urtetik urtera soldadu txatxarragoak zatozte koartelera, baina hemen probetxuzko gizonak bihurtuko zaituztegu. Entzun duzue?

Mikel: Bai, bai.

Kapitaina: Zein erantzuteko modua da hori!!! Entzun duzue?

Soldaduak: Jauna, bai Jauna!

Mikel: Bai, bai jauna.

Kapitaina: *(Haserre)* Bai, bai jauna ez. Jauna, bai Jauna! Ulertu duzu?

Mikel: Bai, bai.

Kapitaina: Nola?

Mikel: Zera... Bai Jauna, bai Jauna.

Kapitaina: Bai Jauna, bai jauna ezetz! Jauna, bai Jauna!

Mikel: eeh... Jauna bai, Jauna bai.

Kapitaina: Ezetz! Zoratuko nauzu!
Erantzun behar duzunean esan "A sus ordenes mi Capitán"
eta kitto!

Mikel: Jauna, bai Jauna!

Kapitaina: Adarrak joten ahal zabiltza?

Mikel: Jauna, bai Jauna... zera... ez, ez, ez jauna ez.

Kapitaina: Baina nola izan daiteke horren astakiloa!!! Zein da zure izena eta zenbakia?

Mikel: "A sus ordenes mi Capitán"!

Kapitaina: Eta orain zer demontre esaten ari zara?

Mikel: Jauna oraintxe bertan esan didazu erantzun behar dudanean
"A sus ordenes mi Capitán"! esateko.

Kapitaina: Zoratu behar nauzu! Utz ditzagun txorakeriak eta has
gaitezen ariketak egiten.
"Fiiiiirmes"!!!

*(Soldaduak tente eta eskopeta -erratzak izan daitezke- lepora
eramaten dute, baina Mikeli erori egiten zaio. Baita lurretik arin hartu
ere.)*

Kapitaina: Aurrera!... Eskuma! Eskuma! Eskuma-ezkerra-eskuma!

*(Soldaduak ongi dabiltza, baina Mikel - ilarako azkena- pausoa ezin
hartuta dabil)*

Kapitaina: Bira erdia!!! *(guztiak bira erdia ematen dute Mikel izan
ezik)*

Kapitaina: Aurrera!!! *(Mikel eta soldaduek elkar topo egiten dute
guztiak estropezatuz)*

Kapitaina: Hau da desastrea! Jar zaitetze berriro ilaran! Arin!
(Ilaran jartzen dira. Oraingoan Mikel Lehenengoa da)

Kapitaina: Bira Erdia! *(Berriro ere soldaduek bira erdia ematen dute
baina Mikelek ez)*

Kapitaina: Aurrera! *(Soldaduek norabide bat eta Mikelek kontrakoa
hartzen dute, elkarrengandik urruntzen doazelarik)*

Kapitaina: Baina, zer egin dut hau merezi izateko?
Deskantsuko posizioan! *(soldaduak gorputza lasaitu eta
eskopeta jaisten dute. Mikel berriz lurrean etzan egiten
da.)*

Kapitaina: Ze arraio egiten ari zara???

Mikel: "A sus ordenes mi capitan". Zuk esan eta nik bete. Deskantsuko posizioa agindu duzu, eta nik horrela deskantsatzen dut.

Kapitaina: Alde nire begi bistatik!!! Ez zaitut gehiago ikusi nahi!

Mikel (kontalaria): Zoroetxe hura niretzat ez zela konturatu nintzen, eta egunkarian lanen baten bila hasi nintzen. *(egunkaria irakurtzen hasten da)* Hau ez... hau ez... ez, ez... Hauxe! Hau bai!
"Diru asko errez irabazteko aukera. Etxez etxe liburuak saltzeko jendea behar dugu".
Eta honela, liburuak etxez etxe saltzen hasi nintzen.

(Mikel traje eta korbataz jantzirik liburuak eskuetan daramatza. Eszenatoki erdian ate bat dago -kartoizkoa izan daiteke- tinbrea jo eta atea irekitzen da.)

Mikel: Kaixo emakumea. Gaur zure zorteko eguna da... *(atea gogor itxi egiten diote mutur aurrean)*
Tira, tira, ez gaitezen desanimatu. Beste etxe honetan probatuko dut *(tinbrea jotzen du eta atea irekitzen da)*.

Mikel: Egun on emakumea. Gaur zure zorteko eguna da. Historiako 3 liburu hauek merke merke saltzen nabil.

Emakumea 4: Eskerrik asko, baina ez zait interesatzen. *(basura poltsa bat ateratzen du)* Joaten zarenean, zakar poltsa hau eramán kontenedorera mesedez. *(Atea itxi egiten du)*.

Mikel: Baina, baina... Aizu...
Ea, beste honetan saiatuko naiz *(tinbrea jo eta atea irekitzen da)*
Gaur zure zorteko eguna da. Historiako 3 liburu hauek merke merke saltzen nabil.

Emakumea 1: Historia? Hau gauza interesgarria.

Mikel: Benetan? Interesatzen ahal zaizu?

Emakumea 1: Bai, bai, noski. Aizu, liburu hauek ez dituzu hobeto motxila baten eramango?

Mikel: Beno... bai... beharbada bai. Baina...

Emakumea 1: *(Motxila bat ateratzen du)* Begira, a ze nolako motxila dotorea. Zu izateagatik 60 Euro besterik ez dizut kobratuko.

Mikel: Baina... baina... ni liburuak saltzera etorri naiz.

Emakumea 1: Bai gizona, lasai. Oraintxe jarraituko dugu liburuekin. Tori motxila. 50 euro eta kitto.

Mikel: Tira ba, tira ba. Har ezazu 50 euroak *(dirua ematen dio)*. Beno, eta orain goazen historiarekin. Zenbat liburu nahi dituzu?

Emakumea 1: Hobeto pentsatu dut. Nori ardura dio aspaldi gertatutakoa? Ez zait interesatzen.

(atea itxi egiten du eta Mikel tonto aurpegiarekin, lehenengo ateari eta gero motxilari begira gelditzen da).

Mikel: Tira, zer egingo diogu ba. Gutxienez motxila aprobe txatuko dut. *(Baina liburuak motxilan sartzean, lurrera erortzen dira, motxilak azpiko zorroa erabat apurtuta du eta).*

Mikel: Bikain Mikel, bikain

(Beste tinbre bat jotzen du. Emakume bat kamisoian eta lumekin ateratzen da).

Emakumea 2: Kaixo "muskulitos"

Mikel: Kaixo... kaixo emakumea. Zera... Gaur zure zorteko eguna da.

Emakumea 2: Aizu moñoño, agian zurea da zorteko eguna. *(Igurtziak eta lumekin kilimak egiten dizkio)*

Mikel: Bai, beno... eee historiako liburu hauek eskaintza berezian ditut...

Emakumea 2: Eskaintza berezia nik egingo dizudana *(Korbatatik heldu eta bereganantz tira egiten dio).*

Mikel: Emakumea... berandu egin zait. Joan beharra dut. Agur. Ai ene, Ai ene. Lan hau pentsatzen nuen baino gogorragoa da. *(berriro ere tinbrea jotzen du).*

Mikel: Kaixo gaur zure zorteko eguna da. Historiako liburu hauek eskaintza berezian daude.

Emakumea 3: Historia? Ea, utzi begiradatxo bat ematen. *(liburuak begiratzen hasten da).* Bai, bai. Oso interesgarria. 3 liburuak nahi ditut.

Mikel: *(Bira erdia eman eta ikuslegoari hizketan hasten da)* Azkenean salduko ditut! *(Berriro bira erdia eman orduko atea mutur aurrean itxi egiten da liburuak etxe barruan geldituz. Mikel ate joka hasten da baina ez diote irekitzen).*

Mikel: Aizu, barkatu baina ez didazu ordaindu. *(berriro ere atea jotzen du. 2, 3, 4...aldiz)* Aizuuuu....

Mikel (kontalaria): Argi gelditu zen liburuak saltzea ez zela nire lana.
Berriro ere lan bila jarraitu nuen. (*egunkaria irakurtzen hasten da*).
Oraingoan bai! "Jatetxe baterako zerbitzaria behar dugu".
Hauxe da nirea!

Nagusia: Mikel, gaurko eguna froga eguna izango da. Lana ongi egiten baduzu kontratatua zaude.

Mikel: Lasai nagusi jauna. Dena primeran joango da.

Nagusia: Begira mahai horretan daukazu lehenengo bezeroa. Nik errekadu batzuk egiteko aprobetxatuko dut.

Mikel: (*bezeroarengana hurbilduz*) Arratsaldeon jauna. Zer nahi duzu afaltzeko?

Bezeroa 1: Kontxo! Baina, baina... Zu... Zu Mikel zara!

Mikel: Kontxo! eta zu Andoni! Txikitako laguna.

Bezeroa 1: Aspaldiko. Zenbat denbora ikusi gabe. Eman iezadazu besarkada bat. Aizu zurea ahal da jatetxe hau?

Mikel: Nirea? Ehh, bai bai.

Bezeroa 1: Hau da hau. Eta nik jabea bestea zelakoan...

Mikel: Ez, ez hori zerbitzaria baino ez da. Nire langileetariko bat.

Bezeroa 1: Hau ospatu beharra dago. Eseri nirekin eta har dezagun ardotxo bat.

Mikel: Ez, ez. Lan asko daukat eta orain...

Bezeroa 1: Tira, tira. Jabea izanda, atsedena nahi duzunean har dezakezu. *(Mahaian duen ardoa bi basotara isuritzen du)* Topa dezagun aspaldiko garaiengatik.

Mikel: Tira ba. Aspaldiko garaiengatik *(edan egiten du)* Orain banoa,

Bezeroa 1: Egon lasai gizona *(Basoak berriro betetzen ditu)* Aspaldiko kontuak gogoratuko ditugu.

Mikel: Azkena eh? *(edan egiten du)*.

Bezeroa 1: *(Edalontziak berriro betetzen ditu)* Gogoratzen zara Mari Pili andereñoarekin?

Mikel: Mari Pili? "La pulga atómica" deitzen genuena?...

(Musika entzuten hasten da. Bezeroa 1 eta Mikel, hizketan jardungo balute modura ikusi ahal dira. Aldi berean basoak ardoz bete eta edaten dihardute. Azkenerako mozkortuta daude. Orduan bikote bat afaltzera sartzen da.

Mikel mahaitik altxatu eta bikotearengana hurbiltzean estropezu egin eta lurrera erortzen da).

Mikel: Barkatu jaunak. Eseri mahai honetan mesedez. Zer nahi duzue edateko? Ardoa oso goxoa dago.

Bezeroa 2: Ez dugu ardorik edaten. Ura mesedez.

Mikel: Ederki, ura. Oraintxe bertan

(Ura ekartzen du, baina zerbitzen hasten denean ez du basoan bete betean asmatzen, eta ur apur bat mahai gainera eta bezeroa 2ren arropatara erortzen da).

Bezeroa 2: Kontuz ibili gizona!

Mikel: Barkatu andereñoa. Oraintxe bertan ekarriko dizuet lehenengo platera.

(Bueltan sopera bat dakar eta bertan fideoak daude -fideo hutsak izan daitezke).

Mikel: Fideo sopa. *(zerbitzen hasten denean, berriro ere fideo erdiak mahai gainera doaz)*

Bezeroa 3: hau desastrea!

Mikel: Barkatu jauna. Oraintxe bertan garbituko dut. *(baina garbitzen hasten denean, eskuan zuen sopera bezeroa 3ren gainera erortzen zaio.*

Bezeroa 3: Astakirten halakoa! Zer demontre egiten ari zara?

(Momentu horretan nagusia heltzen da)

Nagusia: Zer gertatzen da hemen?

Bezeroa 2: Zer gertatzen den? Zure zerbitzariak goitik behera zikindu gaituela. Hori da hori ganoragabea!

Mikel: *(Nagusiarengana hurbilduz)* Nagusi jauna, guzti honek azalpen erreza du.

Nagusia: mozkortuta zaude! Ken zaitetz nire begi bistatik.

Bezerao 2: Bagoaz hemendik. *(aulkitik zutitu egiten dira).*

Nagusia: Barkatu jaun andereak. Ez zaitezte joan. Afari hau jatetxeak gonbidatzen du. Janari goxoenak aterako dizkizuet.

Bezerao 3: Ongi da, geratukoa gara. Baina beste hanka sartze bat eta bagoaz.

Nagusia: Eseri mesedez.

Mikel: Ai, nik ere eseri beharra dut, neka neka eginda nago eta.

(momentu horretan, Mikelek, bezerao 2 eseritzera zihoan aulkia hartu du eta ondorioz bezerao 2 lurrera erortzen da)

Bezerao 2: Hau adar jotzea da! Ez gara sekula bueltatuko!

Nagusia: Mikel Kalera!

(Nagusia, Bezerao 2 eta Bezerao 3 Eszenatokitik ateratzen dira. Bezerao 1 Mikeli hurbiltzen zaio.)

Mikel: Hau zoritxarra. Ez dut ezertarako balio.

Bezerao 1: Entzun ongi Mikel. Barrez lehertzen egon naiz jatetxera sartu naizenetik.
Ni antzerkiko zuzendaria naiz eta aspalditik zu bezalako aktore baten bila nabilen. Nire antzerkia egiteko kontratatzen zaitut.

Mikel (kontalaria): Egia da. Kontratatu ninduen. Denbora luzean entseietan eman genuen, baina azkenean heldu da eguna. Gaur estreinatuko dugu antzerkia.

Horregatik nago horren urduri. Ba ahal dakizue nola
deitzen den antzerkia? "Lan baten bila"

Iñaki Aldai